TOLOSAKO UDALA

| 3. ERANSKINA: KIROL JARDUERA BEREZIAK ANTOLATZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK. | ANEXO 3: BASES REGULADORAS PARA EL OTORGAMIENTO DE SUBVENCIONES PARA LA ORGANIZACIÓN DE ACTIVIDADES DEPORTIVAS SINGULARES |
|---|---|
| **1. HELBURUA**<br><br>Oinarri hauen helburua da arautzea klubei eta kirol-elkarteei, zein irabazi asmorik gabeko beste elkarte batzuei kirol-jarduerak (kirol-ikuskizunak, ez ohiko kirol-lehiaketa, aisialdiko kirol jarduera bereziak,, kluben urteurrenak, Estatuko ligatara igoera faseak...) antolatzeko diru-laguntzak eskatzeko aukera eta diru-laguntza horien kontzesioa, beti ere, jarduera horiek Tolosa udalerrian antolatzen baldin badira eta interesgarritzat jotzen baldin baditu Tolosako Udaleko Kirol Departamentuak.<br>Jardueren izaeraren arabera, laguntza modu honetara banatu daitezke:<br>a) norgehiagoko erregimenean. Ez dira sartuko 1500€ edo gutxiagoko gastu-aurrekontua duten jarduerak.<br><br>b) Lehiarik gabeko erregimenean, Espainiako txapelketako azken faseak edo parekoak antolatzeko dirulaguntzak.<br><br>**2. PERTSONA ETA ENTITATE ONURADUNAK**<br><br>Diru-laguntza hauek lortu ahal izango dituzte beren helburuen artean kirola sustatzea duten irabazi asmorik gabeko kirol arloko Tolosako klub eta elkarteek eta kirol federazio eta bestelako elkarteek, baldin eta euren helburuen artean kirolaren sustapena badago, naturan kirola, mendia, arrantza, ehiza , zikloturismoa edota beste edozein kirol praktika, lehiaketa izaera soilik ez duten neurrian, antolatzen dituzten jardueren arabera. Hala dagokionean diru-laguntzan, pertsona fisikoek ere eskatu ahal izango dituzte, diru-laguntzaren helburu diren jardueretako edo programetako bat antolatzeko asmoa badute.<br>Honako baldintza hauek bete behar dituzte:<br>a) Indarrean dagoen legediaren arabera eratuta egotea, Eusko Jaurlaritzako Kirol Elkarteen eta Erakundeen Erregistroan eta dagokien Federazioan inskribatuta egotea, kirol elkarteen kasuan.<br>b) Zergen ordainketetan eta Gizarte Segurantzako obligazioetan egunean egotea.<br>c) Klubak edo elkarteak antolatzen duen Kirol jardueretan emakumeek eta gizonek tratu eta aukera-berdintasuna izango duela bermatu beharko du.<br>d) Balantze defizitarioa justifikatzea.<br><br>**3. ESKAERAK ETA AURKEZTEKO EPEAK**<br><br>Laguntza hauek eskatu nahi dituzten erakundeek inprimaki ofizialean betetako eskaera Udaleko Erregistroan aurkeztu | **1. OBJETO**<br><br>Es objeto de las presentes bases la regulación del acceso y concesión de ayudas económicas a clubes y agrupaciones deportivas así como a otras asociaciones sin ánimo de lucro en concepto de organización de actividades deportivas especiales (espectáculos deportivos, actividades deportivas de competición no ordinaria, actividades deportivo-recreativas singulares, aniversarios de clubes, fases de ascenso a ligas estatales...) que se celebren en el término municipal de Tolosa y sean consideradas de interés por el Área de Deportes del Ayuntamiento de Tolosa.<br>Por la naturaleza de dichos eventos las ayudas podrán otorgarse:<br>a) en régimen de concurrencia competitiva, quedando excluídos los acontecimientos cuyo presupuesto de gasto no supere los 1500€.<br><br>b) en régimen de concurrencia no competitiva por la organización de fases finales de campeonatos de España o similares.<br><br>**2.PERSONAS Y ENTIDADES BENEFICIARIAS**<br><br>Podrán optar a estas ayudas económicas los clubes y agrupaciones deportivas de Tolosa, federaciones deportivas y otras asociaciones sin ánimo de lucro, que tengan entre sus objetivos el fomento del deporte en la naturaleza, montaña, caza, pesca, cicloturismo y otras prácticas deportivas que no tengan un carácter meramente de rendimiento, y de acuerdo a las actividades que organicen. También podrán optar a la subvención, las personas físicas que proyecten realizar las actividades objeto de la subvención,<br>Los requisitos a cumplir son los siguientes:<br>a) Estar constituidos de acuerdo con la legislación vigente e inscritos en el Registro de Asociaciones y Entidades Deportivas del Gobierno Vasco y figurar inscrito en la Federación correspondiente, en el caso de los clubs.<br>b) Estar al día con las obligaciones fiscales y de la Seguridad Social.<br>c) Garantizar la igualdad de trato y oportunidades de mujeres y hombres con relación a la actividad que se organize.<br>d) Justificar balance deficitario.<br><br>**3. SOLICITUDES Y PLAZOS DE PRESENTACIÓN** |

| | |
|---|---|
| beharko dute. Horrekin batera, ondoko dokumentazioa ere aurkeztu beharko dute:<br>1. Jarduerak dituen diru-sarreren nahiz gastuen aurrekontu zehatza. Diru-sarreren kapituluak, Udalaren diru-laguntza alde batera utzita, aurkeztutako aurrekontuan aurreikusita duen gastuen %50 estali beharko du gutxienez.<br>2. Diru–laguntza eskatzen duen jardueraren programa zehatza (datak, tokia, parte-hartzaileak...).<br>3. Antolatzaileen izenean, erantzukizun zibileko aseguruaren agiria, antolatzen dituen jarduerak estal ditzan. | Las entidades que deseen optar a estas ayudas, deberán presentar en el Registro del Ayuntamiento la solicitud rellenando el impreso normalizado. Además deberán aportar la siguiente documentación:<br>1. Presupuesto detallado de ingresos y gastos de la actividad. El capítulo de ingresos, excluída la subvención municipal, deberá cubrir, al menos, el 50% del gasto previsto en el presupuesto aportado.<br>2. Programa detallado de la actividad para la que se solicita subvención (fechas, lugar, participantes,...).<br>3. Seguro de responsabilidad civil a nombre de la entidad organizadora, las actividades objeto de subvención. |
| Aurkeztutako dokumentuetan arazoren bat baldin badago, interesdunek arazo horiek konpontzeko eskatuko zaie | En el supuesto de que la documentación presentada presente alguna anomalía, se requerirá al/la solicitante, para que se subsane los defectos de forma advertidos. - |
| **4. ESKAEREN BALORAZIOA** | **4. VALORACIÓN DE LAS PETICIONES** |
| Diru-laguntzen zenbatekoa zehazteko, hurrengo aspektuak baloratuko dira:<br>a) Jarduera zergatik den interesgarria, kirolaren eta gizartearen aldetik.<br>b) Eskatzailearen baliabide ekonomikoak eta horien eta eskatutakoaren arteko proportzioa.<br>c) Erakunde eskatzailearen aurrekoetan erakutsitako jarraitasuna eta egonkortasuna.<br>d) Jarduera gaitutako kirol-langile teknikoak garatzea.<br>e) Zuzenean parte-hartzen dutenen kopurua eta ikusle kopuruaren estimazioa.<br>f) Giz talde bereziei zuzendutako jarduerak<br>g) Kutsu herrikoia eta aisialdirako Kirola ekimenetako kirol-jarduerak nahiz jarduera fisikoak.<br>h) Tolosako herriaren izena eta irudia sustatzea.<br>i) Federazioen eta erakundeen babesa.<br>j) Tolosako Udaleko kirol eta berdintasun politikaren lagungarritzat joko diren jarduerak. | Para la fijación de la cuantía de las subvenciones, se valorarán entre otros los siguientes aspectos:<br>a) Interés deportivo y social de la actividad.<br>b) Los recursos financieros del solicitante y proporción de lo solicitado respecto a los propios medios.<br>c) La continuidad y estabilidad demostrada en anteriores ocasiones por la entidad solicitante.<br>d) El desarrollo de la actividad por personal técnico deportivo cualificado.<br>e) El número de participantes directos/as y estimación de espectadores/as.<br>f) Las actividades dirigidas a colectivos especiales.<br>g) Actividades físico-deportivas de carácter recreativo-popular.<br>h) Difusión del nombre e imagen de Tolosa.<br>i) Respaldo federativo e institucional.<br>j) Actividades consideradas favorecedoras de la política deportiva y de igualdad del Ayuntamiento de Tolosa. |
| **5** | **5. EVALUACIÓ** |
| Diru-laguntzak emateko, ondoko irizpide objektiboak aplikatuko zaizkie:<br>1.a) oinarrian adierazitako kirol jarduerak direnean, elkarrekiko lehian emango dira laguntzak, oinarri hauen 1.b) atalean jasotako diru laguntzak ebatzi ondoren. | El procedimiento de concesión de las subvenciones se aplicará de acuerdo a los siguientes criterios:<br>en el caso de los eventos incluídos en la base 1.a) la concesión se realizará en régimen de concurrencia competitiva, despues de haber resuelto el otorgamiento de las subvenciones del apartado 1.b) concurrecia no competitiva, de las presentes bases. |
| **Kirol-kluben edo jardueren urteurrenak**<br>• 25. urteurrena: 600 euro, gutxienez.<br>• 50. urteurrena: 900 euro, gutxienez. | **Aniversarios de clubes deportivos o eventos deportivos:**<br>• 25 aniversario:mínimo 600 euros |

- 75. urteurrena: 1.200 euro, gutxienez.
- Mendeurrena: 1.500 euro, gutxienez.

**Kirol jardueren berezien ntolaketa**
baloratzeko irizpideak:

Jardunaldi kopurua

1………………..0 puntos.
2………………..5 puntos.
>2………………10 puntos

Kirol maila

-partehartzaileen kirol maila txikia, 0 puntos
- kirol maila ertaina: modalitate jakinetan, Euskadi mailako txapeldunak eta errekorrak eta antzekoak, 10 puntos.
-kirol maila, estatuko txapeldunak eta errekorrak eta antzekoak 20 puntos.
-lurralde mailako txapelketa, 10 puntos
-Euskadiko txapelketa , 25 puntos
-Espainiako txapelketal, 40 puntos

Ikusle kopurua

| | |
|---|---|
| > 1000 | 20 puntos. |
| 500-1000 | 15 puntos. |
| 100 -500 | 5 puntos. |
| < 100 | 1 punto. |

Parte hartzaileen kopurua

| | |
|---|---|
| >1000 | 50 puntos |
| 500 - 1000 | 30 puntos. |
| 250-500 | 20 puntos |
| 100 - 250 | 10 puntos. |
| 50 -100 | 3 punto. |
| < 50 | 0 puntos |

Aurrekontua

| | |
|---|---|
| 1500- 2500 € | 0 puntos. |
| 2500-5000 € | 5 puntos. |
| 5000-10000 € | 10 puntos. |
| 10000-20000 € | 20 puntos |

Bertako kirolaren inguruko jarduera 5 puntu

Gaitasunak murriztuta dituztenei bereziko zuzendutako jarduerak, 10 puntu.

Emakumeentzako espreski antolatzen diren jarduerak, 10 puntu

**3. Jardueren balio erantsia**
Gehienez ere beste 20 puntu gehitu daitezke, baldin eta jarduerak badu ekintza positibo koherenterik Udalaren zeharkako politikarekin, ondorengo gaietan:
.- Berdintasuna: Genero-arraila murriztea eta rol estereotipatuen haustura erraztea, gehienez ere, 10 puntu,

- 50 aniversario:mínimo 900 euros
- 75 aniversario: mínimo 1.200 euros
- Centenario: mínimo 1.500 euros

**Organización de actividades deportivas especiales**
Criterios para valorar:

N.º de jornadas

1………………..0 puntos.
2………………..5 puntos.
>2………………10 puntos

Nivel deportivo

-nivel deportivo de las personas participantes bajo, 0 puntos
-nivel deportivo medio:campeones/as y récords autonómicos y similares en determinadas modalidades, 10 puntos.
-nivel deportivo alto: campeones/as y records estatales y similares, 20 puntos.
-campeonato provincial, 10 puntos
-campeonato autonómico, 25 puntos
-campeonato estatal, 40 puntos

Número de espectadoras/es

| | |
|---|---|
| > 1000 | 20 puntos. |
| 500-1000 | 15 puntos. |
| 100 -500 | 5 puntos. |
| < 100 | 1 punto. |

Número de participantes

| | |
|---|---|
| >1000 | 50 puntos |
| 500 - 1000 | 30 puntos. |
| 250-500 | 20 puntos |
| 100 - 250 | 10 puntos. |
| 50 -100 | 3 punto. |
| < 50 | 0 puntos |

Presupuesto

| | |
|---|---|
| 1500- 2500 € | 0 puntos. |
| 2500-5000 € | 5 puntos. |
| 5000-10000 € | 10 puntos. |
| 10000-20000 € | 20 puntos |

Evento de modalidad autóctona 5 puntos

Actividades deportivas dirigidas exclusivamente a personas con capacidades reducidas: 10 puntos

Eventos deportivos exclusivos para mujeres: 10 puntos

**3.Valor añadido de la actividad**
Podrán añadirse un máximo de 25 puntos cuando el evento organizado incluya acciones positivas coherentes con las políticas transversales del

honela banaturik:

.- Kirolarien parte-hartzea (ahalegin jarraitua gizonezkoen eta emakumezkoen arteko arraila murrizten): 2 puntu.
.- Sariak (kopurua, kualitatea): 2 puntu.
.- Genero-rolak (estereotipoak haustea) antolakuntzan, sari-banaketan: 2 puntu.
.- Hizkuntza ez sexista (ahozko mezua, idatzia): 2 puntu.
.- Erreferente femeninoak agertzea: 2 puntu.
.- Desgaitasun psikikoren bat edo fisikoren bat dutenen integrazioa, % 1etik % 5era bitartekoa: gehienez, 5 puntu.
.- Kultura-aniztasuna, % 1etik % 5era bitartekoa: gehienez, 5 puntu.

Puntuaren balioa izango da atal honetarako ezarritako diru-laguntzen zenbateko osoa onartutako eskaerei guztira emandako puntuekin zatituta ateratzen dena. Diru-laguntza izango da eskaera bakoitzeko lortutako puntu guztien balioaren batura.

## 6. DIRU-LAGUNTZAREN ORDAINKETA ETA JARDUEREN JUSTIFIKAZIOA

Emandako diru-laguntza ordainduko da diruz lagundutako jarduera amaitu ondoren, eta diru-laguntzaren eskaerarekin batera ondoko dokumentazioa aurkeztuta:

1. Diruz lagundutako jardueraren memoria, informazio hau bilduko duena: sexuaren arabera segregatutako datua guztiak eta balorazio irizpideei bakoitzari dagokien informazioa osagarria.
2. Jardueraren memoria ekonomikoa. Ondokoak izan beharko ditu gutxienez:
   a) Kontuen urteko Balantzea (SARRERA eta GASTUEN laburpena)
   b) Jardueraren gastuen zerrenda.
   c) Fakturen indizea, zein gasturenak diren adierazita.
   d) Diru-laguntza osoa justifikatzen duten faktura originalak.
   e) Jasotako diru-sarrera guztien eta finantzaketa-iturrien zerrenda.
   f) Jasotako diru-sarreren ziurtagiriak.
3. Zergei dagozkien betebeharretan (Ogasuna) eta Gizarte Segurantzan eguneratuta egotearen ziurtagiria.
4. Diru-laguntza eskatzen den jarduera babestuko duen erantzukizun zibileko ziurtagiria, antolatzailearen izenean.
5. Dagokion bankuaren edo aurrezki-kutxaren agiria, egiaztatuko duena kirol elkarteak emandako kontu korrontea klub eskatzailearena dela (eskaera berrietan).
6. Diruz laguntzea eskatu duen jardueraren gaineko egitarauen, iragarpen-kartelen, eta bestelako dokumentazio idatziaren nahiz grafikoaren ale bana.
7. Aurkeztutako datuak egiazkoak direla zehazten duen zinpeko aitorpena.

Ez dira onartuko egiaztagiri gisa:

Ayuntamiento en materia de:

.-<u>igualdad:</u> reduciendo la brecha de género y propiciando la ruptura de roles estereotipados, hasta un máximo de 10 puntos, distribuídos tal que:

.-en la participación de deportistas (esfuerzo continuado en reducir la brecha entre hombres y mujeres): 2 punto
.-en los premios (cantidad, cualidad): 2 punto
.-en los roles de género (ruptura estereotipos) a nivel organizativo, en la entrega de premios: 2 puntos
.-en el uso del lenguaje no sexista (mensaje oral, escrito):2 puntos
.-en la presencia de referentes femeninas: 2 puntos
.-<u>integración</u> de personas con discapacidad psíquica o física entre 1% -5%: máximo de 5 puntos
.-<u>multiculturalidad,</u> entre 1%-5%: máximo de 5 puntos

El valor del punto será el resultado de dividir el importe total de las subvenciones establecidas para este apartado entre los puntos asignados al conjunto de las solicitudes admitidas. La subvención será la suma resultante del valor de todos los puntos obtenidos por cada solicitud.

## 6. ABONO DE LA SUBVENCIÓN Y JUSTIFICANCION DE LAS ACTIVIDADES.

El abono de la subvención concedida se efectuará una vez finalizada la actividad subvencionada, y presentando junto a la solicitud de subvención la siguiente documentación:

1. Una memoria de la actividad subvencionada, que recoja todos los datos desagregados por sexos, además de información complementaria referida a cada uno de los indicadores de valoración.
2. Memoria económica de la actividad que incluirá:
   a) Balance económico anual (Resumen de INGRESOS y GASTOS).
   b) Relación de gastos de la actividad.
   c) Índice de facturas indicando el gasto al que corresponden.
   d) Facturas originales justificantes por el total de la subvención.
   e) Relación de los ingresos recibidos y las fuentes de financiación.
   f) Justificantes de los ingresos recibidos.
3. Justificante de estar al corriente de sus obligaciones fiscales y de la Seguridad Social.
4. Justificante del seguro de responsabilidad civil a nombre de la entidad organizadora, que cubra las actividades objeto de subvención.
5. Documento expedido por el banco o caja de ahorros correspondiente que certifique que la cuenta presentada pertenece al club solicitante (para nuevas solicitudes.)
6. Un ejemplar de los programas, publicaciones, carteles anunciadores y cuanta documentación gráfica y escrita haya sido elaborada en la actividad objeto de subvención.
7. Declaración jurada en la que se especifique que los datos entregados se ajustan a la realidad.

| | |
|---|---|
| 1. Klubak, elkarteak nahiz erakundeak bereak dituen administrazio-antolaketaren kostuak.<br>2. Bazkarien, afarien edota ostalaritzako zerbitzuen kostuak, salbu eta diruz lagundutako jarduerako parte-hartzaileek sortutakoak, baina alde batera utzita jarduera antolatzen dutenenak.<br>3. Faktura edota ordainagiria eginaraztea behartu duten jarduerei dagozkien gastu-oharrak.<br><br>Dokumentazio hau aurkezteko epea, diru-laguntzen deialdiaren urteko abenduaren 15a baino lehenago izango da. Data horretarik aurrera, aurkezterakoan arrazoitu gabeko atzerapenik gertatuz gero diru-laguntzaren onuradun izateko aukera guztiak galtzea ekarriko du.<br><br>**7. DIRU LAGUNTZEN KONTROLA**<br><br>Udalak bere-berea du behar adina alditan datuen egiazkotasuna frogatzeko eskubidea, eta diru-laguntzak behar bezala erabiliko dituzten frogatzekoa. | No se admitirán como justificantes:<br>1. Costes internos de administración/organización propios del club, entidad, asociación.<br>2. Costes de comidas, cenas u otros propios de servicios de hostelería, excepto los originados con relación a los propios participantes de la actividad subvencionada , con exclusión de miembros organizadores de dicha actividad.<br>3. Notas de gasto correspondientes a actuaciones que hayan podido dar lugar a la expedición de factura o justificante de pago.<br>El plazo para entregar esta documentación será anterior al 15 de diciembre del año de convocatoria de las ayudas.<br>Más allá de dicha fecha, la demora no justificada en la presentación de la documentación supondrá la pérdida de toda opción a ser beneficiario de percepción de subvención.<br><br>**7. CONTROL DE LAS SUBVENCIONES**<br><br>El Ayuntamiento se reserva el derecho de hacer cuantas comprobaciones considere oportunas para verificar la fiabilidad de los datos y la correcta utilización de las subvenciones. |